Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko ekainaren 17a, asteazkena — 113 — Miércoles, a 17 de junio de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORDIZIAKO UDALA

*Iragarkia*

Ordiziako Udalak, 2020ko ekainaren 12ko 559 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez, honako hau ebatzi du:

*Lehenengoa.* Ordiziako txikizkako merkataritza sustatzeko familiei banatutako erosketa-bonuen programarako oinarrien aldaketa onartzea, 469/2020 Alkatetza Dekretuaren bidez onetsitako ekimenean, honela:

«Diruz lagundu daitekeen jarduera-eremuak barne hartzen ditu martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez itxita egon diren txikizkako merkataritza guztiak, edo itxita egon arren fakturazioan % 50eko murrizketa izan dutenak.»

*Bigarrena.* Ekimenera atxikitako establezimenduen baldintzak aldatzean, establezimenduak ekimenera atxikitzeko epea berriro irekitzen da.

Eskaerak 3 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dira, aldaketa hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Ordiziako webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Akordio hori behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari.

Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete haren aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek, aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Alkatetza honi, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta berraztertze-errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo ustezko ezespena gertatu arte. Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

Denek jakin dezaten argitaratzen dena.

Ordizia, 2020ko ekainaren 12a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (2770)

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Ordizia, mediante Decreto de Alcaldía n.º 559 del 12 de junio de 2020, ha resuelto lo siguiente:

*Primero.* Aprobar la modificación de las bases para el programa de bonos de compra repartidos a las familias para fomentar el comercio minorista de Ordizia de la iniciativa aprobada mediante Decreto de Alcaldía n.º 469/2020, en el sentido siguiente:

«El ámbito de actividad subvencionable comprende todo el comercio minorista que haya estado cerrado por el Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo, o que a pesar de estar cerrados hayan tenido una disminución del 50 % en su facturación.»

*Segundo.* Al modificarse las condiciones de los establecimientos adheridos a la iniciativa, se reabre el plazo de adhesión de los establecimientos a la iniciativa.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 3 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de esta modificación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de Ordizia.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante esta Alcaldía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Ordizia, a 12 de junio de 2020.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (2770)

EK\CV GAO-I-2020-02770